
HELETA uztailaren 1/2/3 juillet 2011
EHZ
FESTIBALA
MUGETATIK'AT!
PRENTSA TXOSTENA
EUSKAL HERRIA ZUZENEAN
kontakt@festival-ehz.com - 0559702008

**Editoriala:**

EHZ ekaitza Heletatik hurbiltzen da ........................................ 3

**Zeatz meatz:**

Ostirala « Mistral » haizearekin .................................................. 4
Larunbata, lau haizetara ........................................................ 5
Tiken Jah fakoly ala Afrikar iraultzaren haizekada ................. 6
Kontzertu eta haize ezberdinen artean .................................... 7

Info praktikoak.............................................................................. 8

Kontaktuak ..................................................................................... 9

# EHZ ekaitza Heletatik hurbiltzen da...

Bere hamabostgarren urtebetetzea ospatu ondoren dakizkigun zailtasunekin (laguntzaileen atxiloketak, lehen gaualdiaren anulazioa...), EHZ festibalak sorpresaz beteriko 16. edizioa aurkezten du. Proiektu berriekin noski, baina printzipio eta balore berdinak atxikiz, bere frogak egin dituen formula batean oinarriturik.

"EHZ, Mugetatik'at"

Mamia ez da aldatzen : **3 egun, 5 eszena eta 60 ikusgarri.** Berrikuntzak aldiz, programazioaren lerroen artean, Heletako plazaren xoko ezberdinetan eta urtez urte arraberritzen den festibalaren ariman aurkitzen dira...

« **Mugetatik'at !** » 2011 urteko lemarekin, EHZ-k helburu ainitzak ditu : bere balore (euskararen defentsa eta erabilpena, bazterketa ororen errefuxa, presoekiko elkartasuna, justizia soziala, giza eskubideen defentsa...) eta printzipioak hedatzea ; baita festibala, trukaketa eta elkartasun momentu bat izatea Euskal Herriarentzat.

Ildo hortatik, gaueko programazio aberatsaren inguruan, festibalzaleak gozatzeko eta parte hartzeko aukera bikoitzak izanen ditu : **karrikartea, antzerkia, dantza, konferentziak, erakusketak, haurren xokoa, kontzertu akustikoak, txarangak, elkarteen herrixka** eta beste ainitz animazio, hitzordu paregabe hori ahal bezain ederra izan dadin denentzat.



EHZ-rekin, ekaitzak forma ezberdinak ditu... Hor duzue 2011-n har ditzazkeen deklinabideen aurkezpena.



# Ostirala « Mistral » haizearekin…

Festibalaren abiapundua Marsella planeta izanen dugu, mediteraneako herria jatorri duten bi artistekin : **IAM,** frantses rap talde mitikoa, baita elektro-rock estiloan igotzen ari den **NASSER** taldea.





Baina Heletako zeruan, **MORCHEEBA** taldearekin ere airatzeko parada ukanen dugu. Ingeles taldea, trip-hop estiloko maisuak, Skye Edwards haien kantari historikoarekin batera etorriko zaizkigu. Gaualdian zehar, aire fresko bat ere sentituko da, **LE PRINCE MIIAOU**, rock-indé estiloko izar berria entzuterakoan.



Gauean zehar, eki haizeak balkanetako sua ekarriko digu, **GORAN BREGOVIC** musikari serbo-kroata ospetsuarekin batera.






# Larunbata, lau haizetara…







Haizeak noiztenka, artista batzuk ospearen bidean eramaten ditu eta gaueko afitxa buruak hortan direla ausarki erran dezakegu : izan **JIM JONES REVUE** (rock 60s), **SHAKA PONK** (punk-rock-elektro) ala **CHINESE MAN** (hip-hop/elektro)…

Gutarik hurbilago, **KEN ZAZPI**-k melodia goxo eta testu azkarren bitartez, publikoaren hunkitzeko errezeta egokia dauka, bere disko berriaren aurkeztera heldu zaigularik.

Baina arratsaldean zehar, beste momentu azkarrak izanen dira. Horien artean **MARIA DOLORES** ala **JACKIE STAR**-en emanaldiak Itsasoa Kabaret-ean ; "Euskal herriari behako bat..." konferentzia - eztabaidak Erregelu trinketean ; EHZ eta Lagunarte konpainiak partaidetzan landutako **GAIA** sorkuntza ibiltariaren lehen emanaldia, Sorgin (Sor-gin: sortu – egin) programaren karietara.







# Tiken Jah fakoly ala Afrikar iraultzaren haizekada…

Igandeak bere forma herrikoia atxikiko du : zikiro, zigante, txaranga, gaitero, joaldun, pilota partida... Kontzertuen aldetik, ainiztasun handia nabarmenduko da egun osoan zehar, **BETAGARRI**, **ZEP**, ala **BONGO BOTRAKO**-rekin, ahantzi gabe reggaearen bolikostar erregea, hala nola **TIKEN JAH FAKOLY**.

Iluntzerakoan, festibala erritmo azkarrean bukatzeko denbora izanen da, punk ispirituarekin, **LA PHAZE** taldearen elektro-rock soinuen inguruan.










# Kontzertu eta haize ezberdinen artean…

Asteburuan zehar, EHZ-k 2011-an garatutako 3 proiektu plazaratuko ditu : **IRUDIKATU** erakusketa (21 artista, 43 obra) Erregelu trinketean ; **THE RODEO IDIOT ENGINE** (hard core – metal), EHrZ musika lehiaketaren irabazlearen kontzertua ; **KARABANEN XOKOA** eta bere animazioak (DJ sets, karaokea…), Les Rendez-vous des Terres Neuves festibalarekin partaidetzan.

Laburbiltzeko, 2011-ko EHZ festibala, kultur eta topaketa iturri haundi bat izanen dela erran dezakegu, Euskal Herria biziarazko, muga geografikoak, politikoak, sozialak ala kulturalak gaindituz… « Mugetatik'AT ! » : Uztailak 1/2/3 Heletan.

## UZTAILA

| | OSTIRALA 1 | LARUNBATA 2 | IGANDEA 3 |
|---|---|---|---|
| GIBELHERRI | MORCHEEBA<br>IAM<br>GORAN BREGOVIC<br>NASSER | KEN ZAZPI<br>JIM JONES REVUE<br>SHAKAPONK<br>CHINESE MAN<br>GOOSE | PROWPUSKOWIC<br>BETAGARRI<br>TIKEN JAH FAKOLY<br>LA PHAZE |
| URBELTZETA | KILLERS<br>MOPA<br>LE PRINCE MIIAOU<br>ESTRICALLA<br>LE CATCHEUR ET LA PUTE | SPLIT77<br>THE RODEO<br>IDIOT ENGINE<br>ATOM RHUMBA<br>DRUNKEN BALORDI | NORTE APACHE<br>BONGO BOTRAKO<br>ZEP |
| ANTXARTETA | MOJITO SYSTEM<br>MOÏ MOÏ<br>KOLEKTIBOA | IPARRALDEKO<br>KONPILAZIOA<br>KOLEKTIBOA | MUSIKHERRIA<br>KOLEKTIBOA<br>AURAS<br>ARDIBELTZA |
| PLAZA | OOOPS<br>CIE CIRKALOUEST | AINSI FONT…<br>SOKA 2<br>OOOPS<br>MANGUIDEM TAFTAF<br>EUSKI<br>JAINEKIN<br>ELKARTEENS HERRIXKA<br>SORGIN | OOOPS<br>MANGUIDEM TAFTAF<br>EUSKI<br>JAINEKIN<br>PILOTA & BERTSULARIAK<br>JOALDUNUNAK.,<br>ZIGANTEAK, GAITERUAK<br>SORGIN |
| ITSASOA | AGUXTIN TA BATTITT<br>MEIN SOHN WILLIAMS<br>ANARI | MARIA DOLORES<br>Y LOS CRUCIFICADOS<br>ERREGEA ETA BUFOIA<br>L'ELEGANCE<br>ET LA BEAUTEE | BATTITTA 4 TTITTA<br>ROUGE CHAPERON<br>THEATRE FORUM |
| ERREGELU | FEMMES DE TOUTES<br>LES HISTOIRES | EH -RI BEHAKO BAT<br>UNE FENÊTRE SUR EH | ZIKIRO + KUXKUXTU |

# Infos praktikoak

## EHZ ekaitzan baldintza hoberenetan sartzeko

Festibalzaleen eta laguntzaileen harrera errexteko, autobusak antolatuak dira herrialde ezberdinetatik asteburuan zehar (5€ joan-etorria). Akitaniako eskualdearekin partaidetzan, prezio beherapenak ere izanen dira, TER treinak erabiliko dituzten EHZ txarteldunentzat, Baionako geltokian korespondentziak izanen direlarik festibaleko autobusekin. Gunean bertan, aparkaleku eta akanpalekuak dohainik izanen dira eta elbarrituentzat harrera berezi bat izanen da.

## Salmenta puntuak

**Baiona:** ELKAR Denda
**Biarritze:** ATABAL gela
**Hendaia:** KANTTU ostatua
**Donibane Garazi:** KUKUXKA
**Donapaleu:** PAGOLA
**Hazparne:** XURIATEA ostatua
**Maule:** “Café des Allées” Ostatua
**Bilbo:** Kafe Antzokia
**Donostia:** DOKA Kafe Antzokia

## Internet & telefonoa

**www.ehz-festibala.com**
**Fnac - Carrefour - Géant - 0 892 68 36 22 (0,34 € /min)- www.fnac.com**
**Réseau TICKETNET : Auchan - Cora - Cultura - E. Leclerc – Virgin megastore**
**Le Progrès - www.ticketnet.fr - 0 892 390 100(0.34 € TTC/min)**

## Prezioak

| | AURREZ | BERTAN |
|---|---|---|
| OSTIRALA | 25€ | 28€ |
| LARUNBATA | 25€ | 28€ |
| IGANDEA | 17€ | 20€ |
| 3 EGUNAK | 50€ | 55€ |

## Liburuxka

Festibaleko liburuxkaren bertsio probisionala internetetik jeiten ahal duzu, programazioariburuzko zeaztasun gehiago ukaiteko

http://www.ehz-festibala.com/livret2011_preview09.pdf

Elektrotasuna, Maiatzak 28, Hazparneko Mendealan ; Zine gaualdia, Ekainak 3, Atalante zine gelan (Baiona)

## Kontaktuak

+33(0)5 59 70 20 08

kontakt@festival-ehz.com

Eneko GORRI: 06.77.82.20.20
Antton LANNES: 06.58,40.19.91
Izarne MOLINA: 06.74.99.26.77
Laetitia LEGLISE: 06.58.47.76.71

www.ehz-festibala.com